

## JJ (soberakinik ez)

Gaur egun, geroz eta familia gehiagok jasaten dute beraien egunerokotasunean janari nahikorik ez izatearen arazoa. Honen ondorio zuzenak hainbat direlarik: osasun falta, umeen energia eza eguna aurrera eramateko garaian, gurasoen estresa... egoera hau kontuan izanik, JJ enpresak, 2023 urtean, urteko proiektua antolatzea erabaki du.

Nor da JJ enpresa?

Gure egunerokotasunean izandako bizipenak kontuan hartu genituen enpresa hau sortzerako garaian. Gehiegi azaldu gabe, arestian aipatutako arazo honen lekuko izan den norbaiten haurtzaroari omendu nahian; JJ enpresak, hau da, Jangelatik Jan, janaria eskuratzeko arazoan izan dituzten pertsona guzti horiei, aukera bat dagoela erakutsi nahi die. Horrela, gure gizarteari hainbat balore ezberdinak transmititzeaz gain, behar dutenei benetako laguntza eskaini nahi diegu.

Zer egin nahi dugu JJ enpresa erabiliaz?

Guk betidanik ikusi dugu jangelako janari kopuru handia zaborretara botatzen dela, eta askotan, jangelako janaria gustatu ez zaigunetan, pentsatu izan dugu: zergatik ez da janari hau gordetzen eta ondoren benetan behar duen norbaiti ematen? Badakigu ez dela erraza soberan geldituko zaien janaria kalkulatzeko jantokietan; izan ere, gazte eta haur masa handi bati zuzenduta egon ohi dira jaki hauek, baina gure ustez lortu daiteke. Hori gutxi balitz ere, etorkizun batean, ekimen hau enpresa handietan aurera eramatea gustatuko litzaziguke.

Baina, nola gauzatuko dugu?

Gure enpresak jangelako soberakinak hartu eta hirian zehar beharra dutenei banatuko dizkie. Astean 2-3 egunetan gauzatuko da eta ikasleek behin behieneko txandak izango diuzte janaria tupper-etan sartzerko. Horrela, gobernuaren diru-laguntzei esker eta enpresa posibleen kolaboratzaileei eta babesleiei esker, etekinak izango ditugu. Hori horrela delarik, etekin horien erdia gure enpresa hobetzeko erabiliko dugu. Hau hurrengo dokumentuetan hobeto eta argiago azladuko dugu.

JJ enpresak lor ditzazkeen ondorioak, izugarriak izan ditezkeelakoan gaude, baina laguntza handia beharko dugu; izan ere, ez da bide erraza izango. Hala ere, gizartea hobetzearen gure helburua lortu nahi dugu eta horregatik, proiektu hau sortzea erabaki dugu.

**J.Jenpresa**

